



LANKIDETZA-HITZARMENA, ABENDAÑOKO GARBIGUNE BERRIAREN ERAIKUNTZA OBRATIK DATOZEN LUR-SOBERAKINAK ALBOETAKO PARTZELETAN METATZEKO ETA BERTAN INTERES OROKORREKO BEHIN-BEHINEKO ERABILERETARAKO PLATAFORMA BAT GAITZEKO.

Zarautzen, 2022ko uztailaren 27an

BILDU DIRA

Aitor Uria Lopetegi jauna, Altuna y Uria SA enpresaren ordezkari gisa (egoitza: Loiola auzoa 25 Azpeitia).

Jose-Angel Ercilla Liceaga jauna, Zarautzko La Salle Ikastetxea hezkuntza zentroaren ordezkari gisa.

Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarautzko Udaleko alkate-udalburua, Udalaren ordezkari izateko legezko gaitasunaren jardunean (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak emandakoa).

ADIERAZTEN DUTE:

Lehena.- Urola Kostako Udal Elkarteak Abendañoako industrialdean Garbigune berri bat eraikitzea proiektatu zuen, egungoaren ordez, Zarautzko Udalaren jabetzako lurretan. Horien erabileraren lagapena Alkatezaren 2021eko ekainaren 15eko 1235 Dekretuaren bidez egin zen, 30 urtetarako.

CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA DEPOSITAR EL EXCEDENTE DE TIERRAS PROCEDENTES DE LA OBRA DE CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO GARBIGUNE DE ABENDAÑO EN PARCELAS COLINDANTES Y HABILITAR UNA PLATAFORMA PARA USOS PROVISIONALES DE INTERÉS GENERAL.

En Zarautz, a 27 de julio de 2022

SE REÚNEN

Aitor Uria Lopetegi, actuando en representación de la empresa Altuna y Uria SA, con sede en Azpeitia, Loiola auzoa 25.

Jose-Angel Ercilla Liceaga, actuando en representación del centro educativo La Salle Ikastetxea, de Zarautz.

Xabier Txurruka Fernandez, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zarautz, actuando en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local.

EXPONEN QUE:

Primero.- La mancomunidad Urola Kosta proyectó la construcción de un nuevo Garbigune en el polígono industrial de Abendaño, en sustitución del existente, en terrenos de propiedad del Ayuntamiento de Zarautz, cuyo uso fue cedido por un periodo de 30 años, en virtud de Decreto de Alcaldía nº 1235, de 15 de junio de 2021.



<p>2021eko urriaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Udal Elkartearen Batzorde Betearazleak Altuna y Uria enpresari esleitu zizkion obrak. Obraren zuzendaritza, berriz, Asmatu SL enpresako teknikariei agindu zitzairen</p> <p>Aurreikusitako jarduketak badauka udal obra-lizentzia (Zarauzko Udalak 2022ko martxoaren 7an emanda). Udalak berak interes bereziko eta onura publikoko adierazpena eman zion obrari, Udalbatzak 2022ko martxoaren 31n hartutako erabakiaren bidez.</p> <p>2022ko ekainaren 20an, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu zen, eta ofizialki hasiera eman zitzairen obrei.</p> <p>Bigarrena.- Garbigunea eraikitzeko proiektuan, lursailak hondeatzean zenbateko lur-soberakina sortuko den kalkulatu zen. Lur garbien bolumen handi bat sortzea aurreikusi da, alegia, jarduera kutsatzaileek eraldatu gabeko lurrak. Udal Elkarteak onartutako proiektuak lur horiek baimendutako zabortegira eramatea eta bertan botatzea proposatu zuen.</p> <p>Zarauzko Udalak, ordea, beste aukera bat planteatu zuen: lur-soberakinen zati bat La Salle ikastetxearen eta Udalaren jabetzako partzela mugakide banatan metatzea, partzela horietan zabalguneko plataforma bat egokitzeko, behin-behineko hainbat erabileratarako (hala nola, aparkalekua, kirol-, jolas- eta aisialdi-instalazioak...).</p> <p>Helburu horrekin, 2022ko otsailean, Asmatu SL enpresari esleitu zion plataforma gaitzeko proiektu espezifiko bat idazteko lana, (Garbigunearen</p>	<p>La Comisión Ejecutiva de la mancomunidad, mediante acuerdo adoptado el 25 de octubre de 2021, adjudicó las obras a la empresa Altuna y Uria. La dirección de obra está encomendada al personal técnico de la empresa Asmatu SL.</p> <p>La actuación prevista cuenta con licencia municipal de obra otorgada por el Ayuntamiento de Zarautz el 7 de marzo 2022. El propio Ayuntamiento declaró la obra de interés especial y utilidad pública, mediante acuerdo adoptado por el Pleno el día 31 de marzo de 2022.</p> <p>El 20 de junio de 2022 se suscribió el acta de comprobación de replanteo, dándose oficialmente comienzo a las obras.</p> <p>Segundo.- En el proyecto de construcción del Garbigune se incluye una estimación de la cantidad de excedente de tierras que se generará al excavar los terrenos. Se prevé generar un gran volumen de tierras limpias, no alteradas por actividades contaminantes. El proyecto aprobado por la Mancomunidad proponía el traslado y depósito de esas tierras a vertedero autorizado.</p> <p>El Ayuntamiento de Zarautz se planteó la posibilidad de depositar parte del excedente de las tierras en dos parcelas colindantes, propiedad de La Salle Ikastetxea y del propio Ayuntamiento, para habilitar en dichas parcelas una explanada o plataforma para diversos usos de carácter provisional como aparcamiento, instalaciones deportivas, de juego y de recreo...</p> <p>Con ese objetivo, en febrero de 2022 adjudicó a la empresa Asmatu SL, la misma que ha redactado el proyecto de Garbigune, la redacción del proyecto</p>
--	---



proiektua idatzi zuen enpresa bera). Proiektua dagoeneko idatzita dago, eta Udalean aurkeztuta (2022ko ekaineko dokumentua, Jokin Idarreta bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzitakoa).

Proiektuak 10.600 m³ inguruko lur-bolumena erabiltzea proposatzen du; horiek gutxi gorabehera 3.575 m²-ko azalera hartuko dute, La Salle ikastetxearen eta Zarauzko Udalaren jabetzako lurretan.

Hirugarrena.- Jarduketarako proposatu diren partzelen zati bat hiri-lurzoruan dago (Abendaño areako espazio libreen sistema orokorra, egokitzeko dagoena); eta, beste zati bat lurzoru urbanizagarri sektorizatugabearen, baina sektorizatze-prozesuan (Errotazar).

Ondorengoak dira horien katastro-erreferentziak:

- a.- 18 poligonoko 43 eta 44 partzelak; 328320 H finka (La Salle Ikastetxea)
- b.- 18 poligonoko 60 partzela; 409172 V finka (Zarauzko Udala)
- c.- 6692069 erreferentzia; 5090962-A finka (Zarauzko udala)

Laugarrena.- Zarauzko Udalak uste du interesgarria dela zona horretan lurra metatzea, honako arrazoi hauengatik:

- Garbigunearen jardueraren aztarna ekologikoa murriztu egingo delako. Lur-soberakinak hondeaketa-lekuaren ondoan utziko direnez, nabarmen murrizten da zabortegira, garraiatzeak eragingo lukeen ingurumen-inpaktua. Era berean, asko murriztuko dira kamioien

espezifiko para habilitar la plataforma. El proyecto está ya redactado y presentado en el Ayuntamiento (documento de junio de 2022, redactado por el ingeniero de caminos, canales y puentes, Jokin Idarreta).

El proyecto propone destinar un volumen de, aproximadamente 10.600 m³, de tierras, que ocuparán una superficie de alrededor de 3.575 m², propiedad de La Salle ikastetxea y el Ayuntamiento de Zarautz.

Tercero.- Las parcelas propuestas para la actuación están, en parte en suelo urbano (sistema general de espacios libres del área de Abendaño, pendiente de acondicionar), y en parte, en suelo urbanizable no sectorizado, pero en proceso de sectorización (Errotazar).

Sus referencias catastrales son las siguientes:

- a.- Parcela 43 y 44 del polígono 18; finca 328320 H (La Salle ikastetxea)
- b.- Parcela 60 del polígono 18 finca 409172 V (Ayuntamiento de Zarautz)
- c.- Referencia 6692069; finca 5090962-A (Ayuntamiento de Zarautz)

Cuarto.- El Ayuntamiento de Zarautz considera de interés el depósito de tierras en la zona por los siguientes motivos:

- Por la reducción de la huella ecológica de la actuación del Garbigune. Al depositarse los excedentes de tierra junto al emplazamiento donde han sido excavados, se reduce considerablemente el impacto ambiental que provocaría su transporte a vertedero. Igualmente, se reducirán notablemente las



zirkulazioak trafikoa dituen eraginak.

- Egokitu beharreko zabalgunean edo plataforman aukera dagoelako interes orokorreko behin-behineko erabilerak ezartzeko (aparkalekuak, kirol-, joko- eta aisialdi-instalazioak...).

Bestalde, La Salle Ikastetxeak, bere lurren hirigintza-egoeraren eta aurreko paragrafoan aipatu den proiektuaren jakitun, uste du proposatutako jarduketara eta bere partzelen erabileraren lagapena egokia dela, betiere horrek inolako arazorik edo erantzukizunik sortzen ez badio eta ikasturtean zehar plataforma berria ikastetxearen beharretarako erabili ahal badu.

Altuna y Uria SA enpresak adierazi du prest dagoela hitzarmen honetan aurreikusitako lanen gastua bere gain hartzeko, kontraprestaziorik gabe, beretzat merkeagoa delako lurra zabortegira eramatea baino.

Bestalde, Urola Kosta Udal Elkarteak adierazi du ados dagoela Garbigune berriaren eraikuntza obratik datozen lur-soberakinak alboetako partzeletan metatzearekin.

Hautatu den lankidetzaren hitzarmenaren irudia arrazoituta dago Udalaren Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak uztailaren 13an egindako 408/2022 txostenaren arrazoibidean.

Txosten horretan zehaztuta daude hitzarmenaren beharra eta egokitasuna, alde bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak eta, baita, kosturik eza

afecciones al tráfico por la circulación de camiones.

- Por la posibilidad de implantar usos provisionales de interés general, en la explanada o plataforma a habilitar (aparcamiento, instalaciones deportivas, de juego y de recreo....

Por su parte, La Salle Ikastetxea, conocedora de la situación urbanística de sus terrenos y del proyecto mencionado en el párrafo anterior, ve adecuada la actuación propuesta y la cesión del uso de sus parcelas, siempre que ello no le genere ningún problema ni responsabilidad y pueda disponer de la nueva explanada para necesidades del centro durante el curso escolar.

La empresa Altura y Uria, S.A se ha mostrado dispuesta a asumir, sin ninguna contraprestación, el gasto de los trabajos previstos en el presente convenio por resultarle más económico que el traslado de las tierras al vertedero.

Por su parte, la Mancomunidad Urola-Kostako Udal Elkarteak, ha mostrado su conformidad con el depósito del excedente de tierras de la obra de construcción del nuevo garbigune en las parcelas colindantes.

La figura del convenio de colaboración adoptada viene fundamentada en la memoria justificativa contenida en el informe nº 408/2022, de 13 de julio, del Responsable del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento.

En el citado informe quedan determinadas la necesidad y oportunidad del mismo, los compromisos adoptados por cada una de las partes, así como la



eta, beraz, kontratuen legeriari lotu beharrik ez izatea, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Adierazitakoagatik, interes publikoak eta pribatuak uztartzeko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea honakoa da:

Garbigune berriaren eraikuntza obratik datozen lur-soberakinak azalpenzatiaren hirugarren puntuan deskribatutako partzeletan metatzea eta zabalguneko edo plataforma bat gaitzea, interes orokorreko behin-behineko erabileretarako (aparkalekua, kirol-, joko- eta aisialdi-instalazioak...), Zarauzko Udalak eta La Salle Ikastetxeak erabili dezaten, azalpenzatiaren laugarren puntuan adierazi den bezala.

Udalak enkargatutako proiektuan jasotakoaren arabera, Abendaño Garbigune berria eraikitzeko egingo den hondeaketako lurren zati bat erabiliko da (10.600 m³ inguru).

Aurreikuspenen arabera, okupatuko den lurzoru osotik, plataformak berak 1.973 m² inguru hartuko ditu, eta gainerakoa (1.602 m²) ezpondetarako izango da. Okupatuko diren lurzoruetatik, 1.415 m² inguru La Salle

ausencia de onerosidad y, por ende, la no sujeción a la legislación de contratos, de conformidad con lo previsto en el artículo 2.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Por lo expuesto, al objeto de conciliar intereses públicos y privados, las partes firman el presente convenio que se registrá por las siguientes:

CLAUSULAS

1.- OBJETO

El objeto de este convenio es el siguiente:

Depositar el excedente de tierras procedentes de la obra de construcción del nuevo Garbigune de Abendaño en las parcelas descritas en el punto tercero de la parte expositiva y habilitar una explanada o plataforma para usos provisionales de interés general (aparcamiento, instalaciones deportivas, de juego y de recreo...) para que, tal y como se ha reflejado en el expositivo cuarto, sea utilizada por el Ayuntamiento y La Salle ikastetxea.

De acuerdo con lo recogido en el proyecto encargado por el Ayuntamiento, se utilizarán parte de las tierras de la excavación (alrededor de 10.600 m³), a realizar para la construcción del nuevo Garbigune de Abendaño.

Se prevé que, de la totalidad del suelo a ocupar, la plataforma propiamente dicha ocupe alrededor de 1.973 m², siendo el resto (1.602 m²) para taludes. De los suelos a ocupar, 1.415 m², aproximadamente, son propiedad de La



<p>Ikastetxerenak dira eta, gainerakoak, Zarautzko Udalarenak.</p> <p>Hitzarmenari proiektuaren planoaren erantsi zaio (1/600 eskalan); bertan, lurmetaketarekin okupatuko diren lurzoruen mugak erakusten dira.</p> <p>2.- ALTUNA Y URIA SA ENPRESAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN KONPROMISOAK ETA AHALMENAK</p> <p>2.a.- Erantzukizun zibila edo penala. <u>Udalak eta Altuna y Uria SA</u> libre uzten dute La Salle Ikastetxea, edozein erantzukizun zibil edo penaletik, jarduketak egin bitartean eta amaitu ondoren ikastetxearen jabetzako partzelan gertatzen diren kalteengatik.</p> <p>2.b.- Jarduketa hasi aurretik. <u>Udalak</u> gainbegiratu eta bere adostasuna emango dio zabalgunea edo plataforma egokitzeko proiektuari. Proiektu horretan, ezpondak egonkortzeko azterlan bat sartuko da, proiektatutako zabalgunek zer geometria izango duen zehazteko; horretarako, honako hauek finkatuko dira: gauzatu beharreko gehieneko maldak, izan behar duen trinkotzea, geruzaka egiteko xehetasunak (beharrezko trinkotzearekin), drainatze-sistemaren definizioa, eta ezponden ingurumenberreskurapena. Halaber, lurmetaketaren gehieneko bolumena finkatu da.</p> <p><u>Udalak</u> esleituko eta ordainduko du jarduketaren zuzendaritza fakultatiboa eta segurtasun eta osasun koordinazioa.</p>	<p>Salle Ikastetxea, y el resto del Ayuntamiento de Zarautz.</p> <p>Se adjunta como anexo al convenio plano del proyecto, a escala 1/600, donde se refleja la delimitación de los suelos a ocupar con el depósito de las tierras.</p> <p>2.- COMPROMISOS Y FACULTADES DE LA EMPRESA ALTUNA Y URIA SA Y DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ</p> <p>2.a.- Responsabilidad civil o penal. <u>El Ayuntamiento y Altuna y Uria SA</u> exoneran a La Salle Ikastetxea de cualquier tipo de responsabilidad (civil o penal) por daños que puedan producirse en la parcela de propiedad del centro educativo durante las actuaciones y con posterioridad al término de las mismas.</p> <p>2.b.- Previos al inicio de la actuación. <u>El Ayuntamiento</u> supervisará y dará su conformidad al proyecto de habilitación de la explanada o plataforma. El proyecto incluye un estudio de estabilización de taludes con el fin de determinar la geometría que deberá tener la explanada proyectada, estableciendo las pendientes máximas a ejecutar, la compactación que debe tener, detalle de su ejecución por tongadas con la compactación necesaria, definición del sistema de drenaje y la recuperación ambiental de los taludes. Asimismo, se fija el volumen máximo de tierras a depositar.</p> <p><u>El Ayuntamiento</u> adjudicará y costeará la dirección facultativa de la actuación, así como la coordinación de seguridad y salud.</p>
--	--



2.c.- Lanak egiten diren bitartean.
Altuna y Uria SA enpresak bere kontura eta Zarauzko Udalaren kontraprestaziorik gabe gauzatuko ditu proiektuaren aurrekontuan jasotako partida hauek:

Aldez aurreko lanak (01), geotextil izeneko partida izan ezik (01.5 kodea)

Lur-mugimenduak (02), osotasunean, 10.600 m³-ra iritsi arte.

Hiri Zerbitzuak (03), Drainatze Sarea bakarrik, bere osotasunean (03.01 kodea).

Gainontzeko kapituluak (04tik 08ra) hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira; horiek Udalak kontratatuko ditu Sektore Publikoko Kontratuen legeriaren arabera.

Hitzarmenaren xede diren lursailetan metatuko diren lurak Garbigunearen hondeaketatik ateratakoak dira. Beste nonbaitekoak badira –adibidez, Errotaberri–, materialen kalitate egokia egiaztatu beharko da, horiek zabaldu aurretik. Ez dira botako eraikuntzako edo eraispenetako beste hondakin batzuk.

Plataforma berria egiteko beharrezkoa den lur-mugimendua bukatuta egongo da 2022-2023 ikasturtea hasi baino lehen (alegia, 2022ko irailaren 7rako).

Jarduketek inguruko urbanizazioa kaltetzen badute, Altuna y Uriak bere kontura itzuliko du haren jatorrizko egoerara.

Udala izango da jarduketaren titularra edo sustatzailea, eta berak kontrolatuko du, obra-zuzendaritzarekin batera, etorkizuneko zabalgunearen

2.c.- Durante la ejecución de los trabajos.
La empresa Altuna y Uria SA ejecutará a su costa y riesgo y sin ninguna contraprestación del Ayuntamiento de Zarautz las siguientes partidas contenidas en el presupuesto del proyecto:

Trabajos previos (01), excluida la partida denominada geotextil (código 01.5).

Movimiento de tierras (02), en su totalidad hasta alcanzar los 10.600 m³

Servicios Urbanos (03), exclusivamente la Red de Drenaje en su totalidad (código 03.01).

Resto de capítulos (04 a 08), quedan excluidos del presente convenio y serán contratados por el Ayuntamiento conforme a la legislación de Contratos del Sector Público.

Las tierras que se depositen en los terrenos objeto del convenio, tendrán su origen en la excavación del Garbigune; si fuera otra la procedencia, por ejemplo, Errotaberri, con carácter previo a su extendido se deberá acreditar la correcta calidad de los materiales. No se depositarán otros residuos de construcción o demolición.

El movimiento de tierras necesario para la ejecución de la nueva plataforma estará terminado antes del comienzo del curso escolar 2022-2023 (7 de septiembre de 2022).

En caso de que la urbanización existente en el entorno quede dañada por las actuaciones, Altuna y Uria la repondrá a su cargo, a su estado original.

El Ayuntamiento será el titular o promotor de la actuación y, con la colaboración de la dirección de obra, velará para que se adopten cuantas



<p>segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzen diren.</p> <p>2.d.- Lanak amaitu ondoren. Altuna y Uria SAK formalki entregatuko dizkio Udalari gauzatutako lanak, urtebeteko berme-epearekin, data horretatik kontatzen hasita.</p> <p>Udalaren kontura izango dira plataforma kontserbatzeko, mantentzeko eta garbitzeko lanak.</p> <p>2.e.- Plataformaren kudeaketa. Udalari dagokio, eta 1. klausulan (xede) xedatutakoaren arabera egingo du.</p> <p>Nolanahi ere, La Salle Ikastetxearen jabetzako lurzoruetan edozein erabilera jartzeko, haren baimena beharko da.</p> <p>3.- LA SALLE IKASTETXEAREN KONPROMISOAK ETA AHALMENAK</p> <p>Hitzarmena sinatzen den unean, La Salle Ikastetxeak Udalari emango dio bere jabetzako finakaren erabilera eta erabilgarritasun osoa, hitzarmenaren xedera zuzen dezan.</p> <p>Aurreko klausulan adierazi den bezala, La Salle Ikastetxearen jabetzako lurzoruetan edozein erabilera jartzeko, haren baimena beharko da. Aurrekoa alde batera utzita, Udalak plataforma ez du erabiliko ikasturtean zehar ikastetxeko jarduerak asalda ditzaketen erabileretarako.</p>	<p>medidas sean necesarias para garantizar la seguridad y estabilidad de la futura explanada.</p> <p>2.d.- Tras la finalización de los trabajos. Altuna y Uria SA entregará formalmente al Ayuntamiento los trabajos ejecutados con un plazo de garantía de un año desde aquella fecha.</p> <p>Será a cuenta del Ayuntamiento la conservación, mantenimiento y limpieza de la plataforma.</p> <p>2.e.- Gestión de la plataforma. Corresponderá al Ayuntamiento, que la realizará en base a lo dispuesto en la cláusula 1 (objeto).</p> <p>En cualquier caso, la implantación de cualquier uso en los suelos propiedad de La Salle Ikastetxea, deberá contar con su consentimiento.</p> <p>3.- COMPROMISOS Y FACULTADES DE LA SALLE IKASTETXEA.</p> <p>En el momento de la firma del convenio, La Salle Ikastetxea entregará al Ayuntamiento el uso y total disposición de la finca de su propiedad, para que la destine al objeto del convenio.</p> <p>Tal y como se señala en la cláusula anterior la implantación de cualquier uso en los suelos propiedad de La Salle ikastetxea, deberá contar con su consentimiento. Independientemente de lo anterior, el Ayuntamiento no utilizará la plataforma para usos que perturben las actividades del centro durante el curso escolar.</p>
--	---



4.- INDARRALDIA, BERRIKUSPENA ETA IRAUNGIPENA

4.1.- Indarraldia. LAU URTEKOA izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Altuna y Uria SA enpresa, ordea, hitzarmenetik kanpo geratuko da, 2.d klausulan aurreikusi den berme-epa igaro ondoren.

Aurreko atalean aurreikusitako epea amaitu aurretik, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena iraungitzea edo luzatzea, gehienez beste lau urterako.

4.2.- Berrikuspena eta aldaketa. Hitzarmena berrikusi edo aldatu ahal izango da, alderdiek aho batez hala adosten badute.

4.3.- Iraungitzea. Hitzarmena bere indarraldia amaitzen denean iraungiko da, edo aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak bete ez eta hitzarmena suntsiarazten denean.

Hitzarmena berau ez betetzeagatik suntsitzen bada, sortutako kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkie suntsiarazpenaren eragileak bai beste alderdiari bai fede oneko hirugarrenei.

5.- HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzorde hori Zarauzko Udalaren bi ordezkari, Altuna y Uria SA enpresaren ordezkari batek eta La Salle Ikastetxearen bi ordezkari osatuko dute, eta hauek izango dira haren eginkizunak: hitzartutako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea; horiek zorrotz betetzeko

4.- VIGENCIA, REVISIÓN Y EXTINCIÓN

4.1.- Plazo de Vigencia. Será de CUATRO AÑOS, a contar desde su firma. En el caso de la empresa Altuna y Uria SA, ésta quedará fuera del convenio, una vez transcurra el plazo de garantía previsto en la cláusula 2.d.

Antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, las partes podrán acordar unánimemente la extinción o la prórroga del convenio, por un periodo de hasta 4 años adicionales.

4.2.- Revisión y modificación. El convenio podrá revisarse o modificarse por acuerdo unánime de las partes.

4.3.- Extinción. El convenio se extinguirá por el transcurso de su vigencia, o por resolución debida al incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos.



En caso de resolución por incumplimiento, el causante de la resolución deberá indemnizar todos los daños y perjuicios que se hayan causado, tanto a la otra parte como a terceros de buena fe.

5.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO.

Se constituirá una Comisión de Seguimiento, compuesta por dos representantes del Ayuntamiento de Zarautz, uno de la empresa Altuna y Uria SA y otros dos de La Salle Ikastetxea, cuyo cometido será la observancia de la ejecución de las previsiones y compromisos estipulados, la proposición de medidas encaminadas a su estricto



<p>neurriak proposatzea; partzelaren erabileraren lagapenean sortzen diren gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea; eta, oro har, etorkizunean sortzen diren gorabehera guztiei erantzutea.</p> <p>6.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA</p> <p>Hitzarmenak izaera administratiboa du. Ondorioz, antolamendu juridiko administratiboak arautuko du.</p> <p>Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek hitzarmen hau honen bidez sinatzen dute dituzte, goian adierazitako tokian eta egunean.</p>	<p>cumplimiento, la resolución de los conflictos y/o interferencias que pudieran ocasionarse durante la cesión del uso de la parcela de referencia, y en general, el atender todas aquellas cuestiones incidentales.</p> <p>6.- NATURALEZA ADMINISTRATIVA DEL CONVENIO</p> <p>El convenio es de naturaleza administrativa. En consecuencia, se regirá por el ordenamiento jurídico administrativo.</p> <p>Y en prueba de conformidad firman los comparecientes el presente documento, por duplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.</p>
--	--

<p>Aitor Uria Lopetegi</p> 	<p>Jose-Angel Ercilla Liceaga</p> 
<p>Xabier Lxurruka Fernandez</p> 